

2009ko martxoan argitaratu zen euskarazko titulu eta egiaztagirien arteko baliokidetzak arautzen dituen Dekretua: 48/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzea.

Aipatutako Dekretuak dioena betez, zure tituluaren edo egiaztagiriaren baliokidetzak administrazioko hizkuntza eskakizunen erregistroan sartzea nahi baduzu, eskabidea egin behar duzu. **Eskabidearekin** batera honako dokumentuak erantsi behar dituzu:

- Tituluaren kopia konpultsatua.
- NANaren kopia.
- Izendapenaren edo kontratuaren kopia.

Eta helbide honetara bidali:

IVAP
Euskalduntze Zerbitzua
Donostia-San Sebastián kalea
01010 Vitoria-Gasteiz